



Donostiako Itzulia

Vuelta a Donostia

Gune ezezagunetan barrena
Descubriendo lo desconocido





ETAPA 1

DONOSTIAKO UDALETXEA

ATUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

- 1 Loretopea Km 1,600
- 2 La Sirena aterpetxea Km 2,400
Albergue La Sirena
- 3 Erregenea Km 2,700
Torre Erreguenea
- 4 Valentín askaldegia Km 3,600
Merendero Valentín
- 5 Gudamendi gaina Km 5,100
Alto de Gudamendi
- 6 Igeldoko herria Km 6,200
Pueblo de Igeldo
- 7 Behatoki meteorologikoa Km 7
Observatorio meteorológico
- 8 Erautzeta baserria Km 8,100
Caserio Erautzeta
- 9 Hegoaldeko zuhaitz-igelen putzua Km 9,700
Charca ranita meridional
- 10 Aritzeta gaina Km 11
Alto de Aritzeta
- 11 Aingeru Guardoa-Bidegurutzea Km 12
Cruce del Ángel de la Guarda
- 12 Pakondoenea baserria Km 13
Caserio Pakondoenea
- 11 Errekalde auzoa Km 14
Barrio de Errekalde

AÑORGA TXIKI

ETAPA 2

AÑORGA TXIKI

- 1 Katxola baserria Km 1,400
Caserio Katxola
- 2 Zientzia Museoa Km 2,700
Museo de la Ciencia
- 3 Oriamendi gaina Km 3,700
Alto de Oriamendi
- 4 Basozabal baserria Km 5,200
Caserio Basozabal
- 5 Muntogorri baserria Km 6,200
Caserio Muntogorri
- 6 Okendotegi bidea Km 7
Punta de Monpas
- 7 Martutene auzoa Km 8,700
Barrio de Martutene

MARTUTENE- 27. POLIGONOA

MARTUTENE POLIGONO 27

ETAPA 3

MARTUTENE - 27. POLIGONOA

MARTUTENE POLIGONO 27

- 1 Kristobaldegi komentua Km 1
Convento de Kristobaldegi
- 2 Ubako elizatxa Km 1,700
Ermita de Uba
- 3 Ametzagañako begiralekua Km 1,800
Mirador de Ametzagaña
- 4 Ametzagañako gotorlekua Km 2,200
Fuerte de Ametzagaña
- 5 Lauazeta Km 3,700
- 6 Txurdiñene bidea Km 4,400
Camino de Txurdiñene
- 7 Molinao parkea Km 5,500
Parque de Molinao
- 8 Kasares - Tomasene kultur etxeak Km 7,300
Casas de cultura
- 9 Pasaiaiko portua Km 8,500
Puerto de Pasaia
- 10 Herrera auzoa Km 9,500
Barrio de Herrera
- 11 Parada baserria Km 11
Caserio Parada

MIRAKRUZ GAINA

ALTO MIRACRUZ



ETAPA 4

MIRAKRUZ GAINA

ALTO MIRACRUZ

- 1 Arzakenea Km 0
- 2 Uliako gotorlekua Km 2,800
Fuerte de Ullia
- 3 Platako itsasargia Km 3,400
Faro de la Plata
- 4 Irurdietako senaia Km 4,600
Cala de Irurdietak
- 5 Lehengo plater tiroko eremua Km 7,300
Antiguo Tiro al Plato
- 6 Balearroka - Errota Km 7,600
Peña del Ballenero - Molino
- 7 Monpas muturra Km 8,100
Punta de Monpas
- 8 Iradiene baserria Km 8,600
Caserio Iradiene
- 9 Okendo kultur etxea Km 9,400
Casa de Cultura Okendo
- 10 San Telmo museoa Km 11,300
Casa de Cultura Okendo
- 11 Paseo berria Km 12,100
Paseo nuevo

UDALETXEA / AYUNTAMIENTO



Club Vasco de Camping Elkartek eta Donostiako Udalak Donostia inguruan egin ohi den itzulian parte hartzera gonbidatzen dute, behar bezala balizatuta eta seinalizatuta, eta aukera paregabea da osasuna eta ongizatea sustatzen diren bitartean aire zabaleko kirolaz gozatzeko.

Jarduera fisikoaren onurei buruzko adostasunaren arren, pertsona askok zailtasunak dituzte oraindik eguneroko bizitzan sartzeko. Ibiltzea da aukera gogokoena Euskadin 50 urtetik aurrera, eta osasuna da motibazio nagusia.

50 urtetik aurrera ibiltzeak osasun kardiobaskularra hobetzen du, bihotza eta zirkulazioa sendotuz. Hezurrak eta artikulazioak ere babesten ditu, osteoporosia eta artritis prebenituz. Gainera, pisua eta odoleko azukrea kontrolatzen laguntzen du, diabetesa izateko arriskua murriztuz. Azkenik, giharren indarrari eta mugikortasunari eusten die, zahartze aktiboa eta osasungarria bultzatuz.

Ibiltzeak estresa eta antsietatea murrizten ditu, gogo-aldartea eta loaren kalitatea hobetuz. Memoria indartzen du eta gaixotasun neurodegeneratiboak prebenitzen ditu. Gainera, jarduera taldean egiten bada, gizarte-harremanak indartzen ditu.

El Club Vasco de Camping y el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián invitan a participar en la tradicional vuelta alrededor de Donostia, correctamente balizada y señalizada, siendo una oportunidad única para disfrutar del deporte al aire libre mientras se promueve la salud y el bienestar.

A pesar del consenso sobre los beneficios de la actividad física, muchas personas aún encuentran dificultades para incorporarla a su vida diaria. Caminar es la opción preferida en Euskadi a partir de los 50 años, siendo la salud la principal motivación.

Caminar regularmente a partir de los 50 años mejora la salud cardiovascular, fortaleciendo el corazón y la circulación. También protege huesos y articulaciones, previniendo la osteoporosis y la artritis. Además, ayuda a controlar el peso y el azúcar en sangre, reduciendo el riesgo de diabetes. Finalmente, mantiene la fuerza muscular y la movilidad, favoreciendo un envejecimiento activo y saludable.

Caminar reduce el estrés y la ansiedad, mejorando el estado de ánimo y la calidad del sueño. También fortalece la memoria y previene enfermedades neurodegenerativas. Además, si la actividad se realiza en grupo fortalece las relaciones sociales.



Ibilbide horrek, ibilbide orekatua eta irisgarria eskaintzeaz gain, inklusioa sustatzen du, adina, egoera fisikoa edo egoera ekonomikoa edozein izanda ere.

Horregatik, edozein adinetan bizimodu aktiboa eta osasungarria sustatzen duen ekimen honen berri eman nahi diegu donostiarrei.

Esta ruta no solo ofrece un recorrido equilibrado y accesible, sino que también fomenta la inclusión, independientemente de la edad, condición física o situación económica.

Por ello queremos dar a conocer a la ciudadanía donostiarra esta iniciativa que promueve un estilo de vida activo y saludable en cualquier edad.





AURKEZPENA

Donostiako Itzulia ibilbide zirkularra da, eta hiriaren periferia oinez edo mendiko bizikletan ezagutzeko aukera ematen dizu. Hirigunetik abiatuta, lurralde mistoa aurkituko duzu; landa lurra eta hiri ingurua, oraindik nekazaritza ogibide duten baserri tradizionalak apaindutako landazabalak, ongi kontserbatutako hiriko baso parkeak, Urumea ibaiertzeko erribera paisaiak eta Herrerako kai babestuetako portu giroa, Uliako itsaslabarretako natura oraindik ere basatiarekin kontrastea eginez.

Donostiako Itzuliaren helburua Kontxako badiaren eremu enblematikotik haraindi dagoen hiriaren inguruko paisaiaren balioa nabarmentzea eta barrualdeko hiri ingurua ezagutzeko aukera ematea da, modu osasungarrian eta ingurunea errespetatuz. Bidean, paisaia eta etnografia aldetik interesgarriak diren lekuak ezagutuko ditugu, baita donostiar gehienek ahaztuta duten hiriko ondare kultural eta historikoa ere.

Proposatutako ibilbidea egokia da lasai edo lasterka egiteko, norberaren zaletasunen eta gaitasunen arabera, eta lur orotako —BTT— edo grabeleko bizikletan ibiltzeko barne bideak ere eskaintzen ditu. Ibilbide osoa pintatuta eta seinaleztatuta dago, oinez edo bizikletan goazela bideari erraz jarraitzeko. Ibilbidearen track-ak osorik deskarga daitezke webgunetik, GPS bidez erabiltzeko.

PRESENTACIÓN

La Vuelta a Donostia es un recorrido circular que te invita a recorrer la periferia del territorio de la ciudad caminando o en BTT. Partiendo del centro recorre un terreno mixto, entre rural y periurbano, en el que se alternan paisajes de campiña con caseríos tradicionales con actividad agraria todavía presente, parques urbanos de bosques bien conservados, paisajes de ribera a orillas del Urumea o el ambiente portuario de las dársenas protegidas de La Herrera, que contrastan con la naturaleza todavía salvaje de los acantilados de Ulia.

La Vuelta a Donostia pretende poner en valor el paisaje que rodea la ciudad, más allá del emblemático entorno de la bahía de La Concha, ayudándonos a descubrir un entorno más abierto, tierra adentro, de una manera saludable y respetuosa con el entorno. A lo largo del camino se señalan los puntos de interés paisajístico y etnográfico, así como aquellos que pertenecen al patrimonio cultural e histórico de la ciudad y que en muchos casos permanecen en el olvido para la mayor parte de los donostiarros.

El trazado propuesto invita a recorrerlo caminando pausadamente o a la carrera, según gustos, aptitudes y dispone de las variantes necesarias para transitarlo también en bicicleta todo terreno —BTT— o gravel. Todo el recorrido se ha señalado con pintura y diversos paneles de señalética vertical que nos ayudarán sobre el terreno, tanto si realizamos el itinerario caminando como en bicicleta y los tracks del recorrido pueden ser descargados íntegramente para su uso con GPS a través de la página web.

Lurraldeak orografia zaila duenez, edozein ibilbidek txikituta uzten dizkizu hankak. Proposatutako bidea, beraz, ez da paseoa, eta hainbat orduz ibiltzeko prest egotea eta, urte sasoiaren arabera, beharrezko guztia hartzea eskatzen du. Hala ere, bidea hiritik oso gertu dagoenez, hainbat ihesbide eta babesleku daude eguraldia okertzen bada edo nekatuta baldin bagaude. Gainera, etapa guztiak Dbus udal autobus zerbitzuaren galekuren batetik hurbil hasten dira, eta gidak ibilbidean zehar beste galeku batzuetara nola iritsi ere adierazten du. Ibilbidea arinagoa izan dadin, lau etapatan banatu da, ahal dela erlojuaren orratzen kontrako noranzkoan egiteko.

Ibilbideak guztira 50 km ditu, 4 etapatan banatuta, hurrenez hurren, 15, 11,3, 11,5 eta 12,5 km-koak.

1. ETAPA (UDALETXEA - AÑORGA TXIKI):

Udaletxearen ate ondotik abiatuta, Kontxako pasealekua zeharkatuko dugu, Ondarretaraino, eta Igeldora igoko gara, Kantauri itsasoa noraino zabaltzen den ikusteko. Bertako hirigune bitxia atzean utzita, mendiaren hego mazelatik Igarako erriberara jaitsiko gara, hots, hegoaldeko zuhaitz-igel endemikoaren habitat naturalera, eta Usurbilekiko mugara igoko gara, Oria ibaiaren erribera eta Donostialdeako eskualdearen zati handi bat ikusteko talaia ezin hobea. Amaitzeko, Añorgara jaitsiko gara, base-ri artean, eta, bidegorria hartuta, Añorga Txikira.

La compleja orografía de nuestro territorio convierte cualquier itinerario en un rompepiernas. La ruta propuesta no es pues un paseo y exige la determinación de caminar durante varias horas, equipado adecuadamente según las condiciones de la época del año. No obstante, siendo un trazado tan próximo a la urbe, las escapatorias y los cobijos son múltiples en caso de mal tiempo o de cansancio. Además, todas las etapas se inician en las proximidades de paradas del servicio municipal de autobuses Dbus y en la guía se señalan las posibles salidas a otras paradas a lo largo de la ruta. Para hacer más llevadero el recorrido se ha dividido en cuatro etapas, con un sentido preferente contrario a las agujas del reloj.

El recorrido total tiene una longitud de 50 km, dividido en 4 etapas de 15, 11,3, 11,5 y 12,5 km.

ETAPA 1 (AYUNTAMIENTO - AÑORGA TXIKI):

Partiendo de las puertas del edificio del Ayuntamiento recorre el Paseo de La Concha hasta Ondarreta para subir a Igeldo, dando vista a la vasta extensión del Cantábrico. De su pintoresco núcleo urbano se desciende por la ladera Sur a la ribera de Gorga, hábitat natural de la endémica ranita meridional y se asciende luego hasta la muga con Usurbil, magnífica atalaya sobre la ribera del Oria y buena parte de la comarca de Donostialdea. El recorrido termina descendiendo entre caseríos a Añorga y, a través del bidegorri, a Añorga Txiki.

2. ETAPA (AÑORGA TXIKI - 27. POLIGONOA):

Añorga Txikitik gora, Miramon parkean sartuko gara, hiriko birika berdeetako batean. Zientzia Museoaren ondotik pasatu eta Oriamendi gainera iritsiko gara. Hernanirekiko mugan barrena, Basozabaletik Urumearen ibarrera jaitsiko gara eta, handik, Martutenera joango gara. Ibilbidearen zati honetan, Urumearen goi arroa inguratzen duten mendien ingeradak ikus ditzakegu hodeiartean.

3. ETAPA (27. POLIGONOA - MIRAKRUZ GAINA):

Bideak Urumea ibaiaren ibilguaren ondotik meandroetan barrena bokaleraino iristen den zirga bideari jarraitzen dio; ibai paisaiak txundituta utziko gaitu. Loiolan, Ametzagaña parkera igoko gara, gotorlekuraino, eta, ondoren, Molinao-rantz jaitsiko gara. Berriz ere gora egingo dugu, Altzara, eta, amaitzeko, Pasaiaiko portuaren eta bertako kaiaren ondotik, Mirakruz gainera iritsiko gara, hiriaren ekialdeko sarrera naturalera. Etapa honetan, zenbait eraikin berezi ikusi ahal izango ditugu.

ETAPA 2 (AÑORGA TXIKI - POLÍGONO 27):

Desde Añorga Txiki se asciende para adentrarse en el Parque de Miramon, uno de los pulmones verdes de la ciudad. Se alcanza la colina de Oriamendi tras pasar junto al Museo de la Ciencia y, recorriendo la muga con Hernani, se desciende por Basozabal hasta la vega del Urumea, para llegar hasta Martutene. En esta parte del recorrido cierran el horizonte las siluetas de los montes que rodean la cuenca alta del Urumea.

ETAPA 3 (POLÍGONO 27 - ALTO MIRACRUZ):

La ruta sigue el camino de sirga que, pegado al cauce del río Urumea, recorre sus meandros hacia la desembocadura, sorprendiéndonos con su paisaje fluvial. Se asciende en Loiola al Parque de Ametzagaina, llegando hasta su fuerte para descender luego hacia Molinao y volver a ascender a Alza y, junto al Puerto de Pasaia y su dársena, terminar en el Alto Miracruz, entrada natural de la ciudad desde el este. Varios edificios singulares jalonan el recorrido de esta etapa.

4. ETAPA (MIRAKRUZ GAINA - UDALETXEA):

Etapa honek Donostiako inguru basatienean barrena eramango gaitu. Uliako puntara igo eta Gipuzkoako geografia-ren zati handi bat ikusi ondoren, La Plata itsasargira iritsiko gara, leku benetan xarmagarria, Pasaia portuaren bokale gainean. Ondoren, itsaslabarren ondoko bidezidorretatik Saguesera jaitsiko gara eta bidearen azken zatia hiritik egingo dugu: Zurriola pasealekua eta Pasealeku Berria. Udaletxearen ondoan amaituko dugu, Donostiako Itzulia-ren abiapuntu.

ETAPA 4 (ALTO MIRACRUZ - AYUNTAMIENTO):

Esta etapa recorre el entorno más salvaje del territorio donostiarra. Ascendiendo primero hasta el punto culminante de Uliá, desde donde se domina una buena parte de la geografía guipuzcoana, la ruta visita el faro de La Plata, lugar de gran encanto sobre la bocana del Puerto de Pasaia y recorre luego los senderos sobre los acantilados para descender finalmente a Sagües y recorrer la última parte de la ruta, ya urbana, por el Paseo de La Zurriola y el Paseo Nuevo, terminando junto al Ayuntamiento, punto inicial de la Vuelta a Donostia.





15 km



4 h 30'



ETAPA 1

DONOSTIAKO UDALETXEA / AÑORGA TXIKI
AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN / AÑORGA TXIKI



Club Vasco de Camping Elkartea



Club Vasco de Camping Elkartea

1. donostiako udaletxea / añorga txiki

Loretopea

Km 1,6


Kontxa eta Ondarreta bereizten dituen lur muturra da, gaztelaniaz -euskal izenaren okerreko itzulpena eginda- jendartean *Pico del Loro* eta *Pico del Oro* izenez ezaguna. Berezko izenaren jatorria, ordea, *Loreto-pea* da: izan ere, han antzinatik izan zen Loretoko Andre Mariaren basiliza, XVIII. mendean zaharberritua eta zabaldua, Squillaceko printzesak horretarako lagatako lurrei esker.

1. ayuntamiento de san sebastián / añorga txiki

Loretopea

Km 1,6

El espolón de roca que separa las playas de La Concha y Ondarreta, popularmente conocido como "Pico del loro" y "Pico del oro" debe su nombre de Loreto-pea a la ya desaparecida ermita de Ntra. Sra. de Loreto que desde tiempo inmemorial existió en el lugar, siendo restaurada y ampliada en el siglo XVIII merced a terrenos cedidos al efecto por la princesa de Esquilache.





Club Vasco de Camping Elkartea



Club Vasco de Camping Elkartea

Igeldo

Km 6,2

Landa ingurune hori antzina-antzinakoa da. Aspaldiko garaietan, Santa Maria elizaren mende zegoen. Eliza nabarmentzen da, San Petriri eskainia, XV. mendeakoa, 1904an garaieraz handitua, Ramon Kortazarren planoei jarraikiz.

Igeldo

Km 6,2

La antigüedad de este asentamiento de carácter rural se pierde en el tiempo, sabiéndose que dependía de la iglesia de Santa María. Destaca la iglesia, bajo la advocación de San Pedro, datada en el s. XV y ampliada en alturas el año 1904, siguiendo planos de Ramón Cortázar.

Meteorologia behatokia

Km 7

1902an aita Juan Migel Orkolagak sortua. *Padre Borrascas* ezizeneko apaiz hura Euskal Herriko meteorologia zientziaren aitzindaritzat jotzen da, eta haren oroimenez jarri zaio izena hara daraman pasealekuari (Aita Orkolaga pasealekua). Behatokia, berriz, berariaz meteorologiakoa den Estatuko lehendabizikotzat dago katalogatua.

Observatorio meteorológico

Km 7

Creado en 1902 por el Padre Juan Miguel Orcolaga, popularmente conocido como "Padre Borrascas", está considerado como precursor de la ciencia meteorológica en el País Vasco y se le recuerda dando su nombre al paseo que conduce al lugar. El Observatorio está catalogado como el primero específicamente meteorológico del Estado.

Aingeru Guardakoa

Km 12

Usurbila goazela dagoen bidegurutze hori garrantzi handikoa zen antzina. XVI. mendean eraikitako Aingeru Guardakoa basilizatik hartu du izena. Karlistaldietan, bombardaketetatik babestu nahi zituzten zenbait erlijio irudi gorde zituzten han. Duela hamarkada batzuk zaharberritu eta handitu zuten auzotarrek.



Ángel de la Guarda

Km 12

Este antaño importante cruce de caminos que conduce a Usurbil debe su nombre a la ermita del Santo Ángel de la Guarda, cuya existencia se remonta al siglo XVI. Durante las guerras carlistas fue refugio de algunas imágenes religiosas que se trataban de salvar de los bombardeos. Hace algunas décadas fue restaurada y ampliada por el vecindario.








Hegoaldeko zuhaitz-igela (Igeldo)

Hegoaldeko zuhaitz-igela (*Hyla meridionalis*) urlehortar txiki bat da, kolore berde argi eta distiratsukoa. Marra iluna du sudurzuloetatik besazpietaraino. Egun, egoera zailean dago Mendizorrotz aldean, baina garai batean ugaria zen Igeldo mendiaren ingurunean. Dirudie-nez, Igeldo izenaren jatorria *igel* eta *doi* (tokia, lekua) hitzak dira, hau da, igeltokia, igelen tokia. Oso daite-keena da gure arbasoek tokiari izena jartzean igel bitxi eta berezi horiei erreparatzea, orduan franko baitziren inguruan.

Ranita meridional (Igeldo)

La ranita meridional (*Hyla meridionalis*) es un pequeño anfi-bio de color verde claro y brillante que presenta una franja oscura desde los orificios nasales hasta las axilas. Aunque actualmente su situación en la zona de Mendizorrotz es delicada, hubo un tiempo en el que abundaba en el entorno del monte Igeldo. Según parece, el nombre de Igeldo viene de *igel* (rana) y de *doi* (sitio, lugar) y significaría ranero, o sitio de ranas. Es muy probable que nuestros antepasados le dieran el nombre fijándose en estas curiosas y peculiares ranitas, entonces abundantes en la zona.



ETAPA 2

AÑORGA TXIKI / MARTUTENeko 27. POLIGONOA
AÑORGA TXIKI / POLÍGONO 27 MARTUTENE



Club Vasco de Camping Elkartea



Club Vasco de Camping Elkartea

2. añorga txiki / martuteneko 27. poligonoa 2. añorga txiki / polígono 27 martutene

Katxola baserria

Km 1,4

Euskal Herriko usadioko landa arkitekturari jarraituz eraikia, XVIII. mendekotzat jotzen da. Gorde diren dola-re-baserri urrietako bat da; etxekoentzako sagardoa egiteko instalazioa du. Tokiari egokitutako diseinu berezia du, tipologiaren aldetik originaltasun handikoa. 1990an mugitu eta zaharberritu zuten, eta gaur egun kulturagune bat da.



Club Vasco de Camping Elkartea

Caserío Katxola

Km 1,4

Construido según la tradicional arquitectura rural del país, está datado en el s. XVIII. Se trata de uno de los pocos caseríos-lagar que se conservan, contando con instalación para la producción de sidra familiar. Presenta un singular diseño adaptado al espacio, de gran originalidad tipológica. Fue restaurado y trasladado en 1990 y actualmente es un centro cultural.



A. Barriola



Club Vasco de Camping Elkartea

Oriamendi

Km 3,7

Oriamendiko gotorlekua zegoen muinoan gudu odoltsuak izan ziren Lehen Karlistaldian, karlisten eta isabelarren artean. Gudu hartan hildako militarretako batzuk Urgull mendiko Ingelesen hilerrian daude lurperatuta. Aipagarriak dira, orobat, Donostiari Hirugarren Karlistaldian muino horretatik egin zizkieten bonbardaketak. Besteak beste, larri zauritu zuten (eta zauri haien eraginez hilko zen) Indalecio Bizkarrondo «Bilintx» koblari eta bertsolari ospetsua.

Alto de Oriamendi

Km 3,7

El cerro donde se encontraba el Fuerte de Oriamendi fue escenario de cruentas batallas durante la Primera Guerra Carlista entre las tropas carlistas e isabelinas. Algunos militares de esta batalla se encuentran enterrados en el "Cementerio de los ingleses" del monte Urgull. También fueron destacables los bombardeos sufridos por San Sebastián desde esta loma en la Tercera Guerra Carlista, resultando gravemente herido, entre otros, y finalmente falleciendo, el popular bardo y bertsolari Indalecio Bizkarrondo "Bilintx".

Martutene

Km 8,7

Altzako Sarroeta aldekoa zen, hark 1940an independentzia galdu zuen arte. Industria instalazioetarako erabiltzen zen. Donostiako Udalak, gainera, Urumearen ezker aldeko ibaiak auzo horretan zehar egiten duen tartean- etxe lorategidunen eta txaleten eremutzat erabiltzea sustatu zuen, "Eliseo Zelaia" izeneko jolas parkea barne zelarik. Bi ekimen horiek (hala industria erabilera, nola bisitokitarakoa) porrot egin zuten, hariak eta behin betikoa etorri zen arte: 27. poligono ezaguna.



Club Vasco de Camping Elkartea



Martutene

Km 8,7

Perteneciente a la parte de Sarroeta de Altza hasta la pérdida de su independencia el año 1940, fue zona destinada a instalaciones industriales. El Ayuntamiento de San Sebastián promovió además el uso de la orilla izquierda del Urumea, a su paso por este barrio, como zona residencial de villas y chalets que incluía un parque de atracciones conocido como "Los Campos Elíseos". Ambas iniciativas, tanto la de uso industrial como la residencial, fracasaron hasta la construcción del conocido y definitivo "Polígono 27".



Club Vasco de Camping Elkartea



ETAPA 3

MARTUTENeko 27. POLIGONOA / MIRAKRUZ GAINA
POLÍGONO 27 MARTUTENE / ALTO MIRACRUZ



Club Vasco de Camping Elkartea



Club Vasco de Camping Elkartea

3. martuteneko 27. poligonoa / mirakruz gaina 3. polígono 27 martutene / alto miracruz

Uba

Km 1,7

Tradizioak dioenez, Ama Birjina agertu zen Ametzagainan, bertako euskarari Amabirjin Txokua deritzon tokian. Ondorioz, hari eskaini zitzaion antzinako baseliza hori, Hua edo Uba gaskoi izenekoa. Lo Onetako Ama izenaz ezaguna, erromerietan haren oinetara eramane ohi zituzten haurrak. Izan ere, herri sineskerak zioen lo egiten laguntzen ziela.

Ametzagainako gotorlekua

Km 2,2

Lehen Karlistaldian karlistak Hernanik kokaturik, Donostiari eraso zioten Loiolan barrena. San Marko, Txoritokieta eta Ametzagaina hartu zituzten, ibaia

Uba

Km 1,7

Cuenta la tradición que la Virgen se apareció en la zona del monte de Ametzagaña conocida como “Amabirjin Txokua”, motivando que se le dedicara esta antigua ermita, que recibió el nombre gascón de Hua o Uba. Conocida como “Lo Onetako Ama” o “La Virgen del Buen Sueño”, en las romerías se llevaba a sus pies a los niños, porque la creencia popular aseguraba que les ayudaba a dormir.

Fuerte de Ametzagaña

Km 2,2

Establecidos los carlistas en Hernani durante la Primera Guerra Carlista, los ataques a San Sebastián se produjeron por Loiola, apoderándose de San Marcos, Txoritokieta



zeharkatu, eta Oriamendira iritsi. Ametzagainan egon ziren 1853ko abendutik 1876ko otsaileraino. Gotorlekuak tunel baten bidez zuen sarbidea. Tunela angelu zuzena eginez zegoen eraikia, eta 15 bat metro luze zen. Gotorlekuak kanoi txiki batzuk zituen, euri ura biltzen zuen babes erreten batek inguratzen zuen, eta Amabirjin Txulo iturria beste ur hornidurarik ez zuen.

y Ametzagaña antes de cruzar el río y llegar a Oriamendi. Permanecieron en Ametzagaña desde diciembre de 1853 hasta febrero de 1876. Al fuerte podía accederse a través de un túnel, construido en escuadra, de unos 15 metros de longitud. Estaba dotado de varios pequeños cañones, rodeado de un foso que recogía el agua procedente de la lluvia y sin otro abastecimiento que el del manantial Amabirjin Txulo.

Casares eta Tomaseneko baserriak

Km 7,3

Altzak bereizgarri dituen oinetxeak dira, 1625. urtean antzinakotzat aipatuak. Casaresek fatxadan gorde du familiaren (tokiko ospetsuenetakoa) armarria. Gaur egungo Tomasene, berriz, lehenengoz 1566an aipatutako aurreko eraikinaren hondarren gainean berreraikia da, eta XVI. mendeko pizkundetar eusko estilo landatarraren arkitekturari eusten dio. Baserri biak jatorriz Orreagakoak diren eta Altzako historian guztiz sustraiatuak dauden Casares eta Arzak familiei lotuta daude.


Caseríos Casares/Tomasene

Km 7,3

Se trata de casas solariegas características de Altza, mencionadas como antiguas en el año 1625. Casares conserva en su fachada el escudo de armas de la familia, una de las más renombradas del lugar, y la actual Tomasene fue reconstruida sobre las ruinas del anterior edificio, ya citado en 1566, manteniendo la arquitectura que corresponde al estilo rural vasco, renacentista del siglo XVI. Ambos caseríos estuvieron relacionados con las familias de Roncesvalles, Casares y Arzak, muy ligadas a la historia altzatarra.



Club Vasco de Camping Elkartea



A. Barriola

3. martuteneko 27. poligonoa / mirakruz gaina 3. polígono 27 martutene / alto miracruz

Herrera

Km 9,5

Herreran, izenak adierazten duenez, Somorrostrotik itsasoz ekarritako burdina lantzen zen. Filipe III.a Espainiakoaren kronistak idatzita jaso zuenez, erregeren segizioa «Herrerako ontziralekura heldu zen; Donostiatik legoa erdira da leku hori». 1817an, Pasaiaetik Donostiako Udalari eskatu zitzaion bide bat eraiki zezala, Herrera eta hiriburua lotzeko. 1821etik 1828ra bitartean egin zituzten lan horiek.

Parada baserria

Km 11

Parada abizenari ezagutzen zaion aipamenik zaharrena, Donostian, 1261ekoa da, eta besteak beste Arturo Kanpion eta Serapio Muxika egileek jaso dute, gaskoien iritsierari loturik. Eraikinak armarrria du fatxadan, eta harlanduz dago eraikia. «Solar de Parada» idazkuna gordetzen du.



Club Vasco de Camping Elkartea

Herrera

Km 9,5

Herrera o La Herrera indica con su nombre que se trata del lugar donde se trabajaba el mineral de hierro que desde Somorrostro llegaba por mar. El cronista de Felipe III dejó escrito que el cortejo real “llegó al embarcadero de La Herrera, que es a media legua de San Sebastián”. En 1817 desde Pasaia se solicitó al Ayuntamiento de San Sebastián la construcción de un camino que uniera Herrera con la capital, cosa que ocurrió entre los años 1821 y 1828.

Caserío Parada

Km 11

La referencia más antigua que se conoce sobre el apellido Parada, en San Sebastián, está datada el año 1261 y recogida, entre otros, por autores como Arturo Campion y Serapio Múgica, que lo relacionan con la llegada de los gascones. El edificio, con escudo de armas en la fachada y construido con piedra de sillería, conserva la leyenda “Solar de Parada”.



Club Vasco de Camping Elkartea



Euskal Herriko Armeria (Ullia eta Urgull)

Lehenengo aldiz Urgullen 1976an deskribatua, *Armeria euscadiensis* Euskal Herriko kostako landare endemikoa da, espezie mehatxatuen katalogoan bakantzat sartua, geografia eremu txikia hartzen duenez. Bereizgarri ditu lore larrosak, esfera batean multzokatuak, kandu luzeen gainean, eta hostoak oinarrian izanik. Ondo eusten dio gazitasunari, eta zoru silizeoetan bizi da. Donostian, beraz, Urgulleko eta Ulliaiko labarretan aurkituko dugu, ezin iritsizkoenak diren tokietan.

Armeria (Ullia y Urgull)

Descrita por primera vez en Urgull el año 1976, la *Armeria euscadiensis* es una planta endémica de la costa del País Vasco, incluida en el catálogo de especies amenazadas como rara, debido a la pequeña franja geográfica que ocupa. Se caracteriza por presentar flores rosas agrupadas en una esfera sobre largos pedúnculos y con las hojas en la base. Soporta muy bien la salinidad y habita en suelos silíceos por lo que en San Sebastián la podemos encontrar en los lugares más inaccesibles de los acantilados de Urgull y Ullia.



14 km



4 h 45'



ETAPA 4

MIRAKRUZ GAINA / UDALETXEA
ALTO MIRACRUZ / AYUNTAMIENTO



Club Vasco de Camping Elkartea



Club Vasco de Camping Elkartea

4. mirakruz gaina / udaletxea

Uliako gotorlekua

Km 2,4

Ulia mendiak bere kokagune estrategikoari esker, Pasaia eta Donostiako portuen sarbideak zaintzeko aukera ematen zuen, bai eta Urumea ibaiaren itsasoratzeari ere. Horregatik, mendiaren hainbat tokitan kanoi bateriak jarri zituzten. Monpasekoa bezala, 1960 arte izan ziren aktibo. Monpasen dokumentatuta dago 1740an kanoiak ezarri zituztela, Caracasko Gipuzkoar Errege



4. alto miracruz / ayuntamiento

Fuerte de Ulia

Km 2,4

Por su estratégica situación, que le permitía vigilar los accesos a los puertos de Pasaia y San Sebastián, así como a la desembocadura del río Urumea, en distintos lugares del monte Ulia fueron instalándose baterías militares que, como la de Monpás, permanecieron activas hasta 1960. En este último lugar está documentada la instalación de cañones el año 1740, cedidos por la Real Compañía Guipuzcoana



A. Barriola

Konpainiak lagata; eta 1898an Juan Rocak defentsarako bateria bat diseinatu zuela, 1908an artilleriaz hornituko zena. 1813an hiria eraso zutenean, mendi magala -Txofreraino- hautatu zuten tropa anglo-portugesek hiria bonbardatzeko.

Platako itsasargia

Km 3


1855. urtean Carlos Campuzano ingeniariak eraikia, garai hartako arkitekturari darraio, erromantizismoaren eta arkitektura militarren artean. 14 miliaraino heltzen da haren argia. Itsas mailatik 153 metro gorago dago, eta lparaldeko Donejakue bidean aipatua da, Irun-Donostia zatian.

de Navegación a Caracas, y en 1898 una batería defensiva diseñada por Juan Roca que fue dotada de artillería en 1908. Durante el asalto a la ciudad del año 1813 la ladera del monte, hasta el Txofre, fue elegida por las tropas anglo-portuguesas para proceder al bombardeo de la ciudad.

Faro de la Plata

Km 3

Construido el año 1855 por el ingeniero Carlos Campuzano, corresponde a la arquitectura de la época, entre el romanticismo y la arquitectura militar. Con alcance de 14 millas, se encuentra a 153 metros sobre el nivel del mar y es citado en el Camino de Santiago Norte, Irún - San Sebastián.



4. mirakruz gaina / udaletxea

Uliako jolas parkea

Km 6,5

Uliako jolas parkeak, 1909an, uso tiroko munduko zelai hoberenetako bat zuen. Sari handiz hornitutako nazioarteko lehiaketa ospetsuak egiten ziren han. 1920ko hamarkadan bertan behera geratu eta gero, uso tiroko zelaia plater tiroketarako zelaitzat birgaitu zuen Basollua elkarteak 1956an, eta hala erabili zen 1996an itxi arte. Multzo horrek baleak begiztatzeko talaia ikusgarriak zituen, hala nola Arrano haitza, Baleazaleen haitza eta Errege haitza izenekoak. Hantxe dago Uliako errota izeneko egitura duen piknikgunea.

Multzo historikoa:

San Bizente, San Telmo eta gaztelua

Km 9,5

San Bizente eliza eta gaur egungo San Telmo Museoa, 1813an izandako suntsipenetik salbatuak, hiriko multzo historikorik zaharrena dira, Urgullen babesean. Mendi horren izena, gaskoi jatorrikoa, *Orgallu* edota *Orgull* idazkerekina ageri zen antzina. Iragan militarren oroipen diren hormak eta eraikinak nabarmentzen dira. Izan ere, aspaldi-aspaldian gotortu zuten, eta Nafarroako errege Antso Azkarrak berreraiki zuen XII. mendean. Ingelesen hilerrian (1924an inauguratua), XIX. mendean izandako gerretako gudariak dautza. Armada Ministerioak 1921ean Donostiako Udalari saldua, parke publikotzat egokitu zuten.

4. alto miracruz / ayuntamiento

Parque Recreativo de Uliá

Km 6,5

El Parque de atracciones del monte Uliá contaba en 1909 con uno de los mejores campos de tiro al pichón del mundo, donde se celebraban concursos internacionales de gran renombre y con cuantiosos premios. Tras su abandono en los años veinte, el Tiro al Pichón fue rehabilitado como campo de tiro al plato por la sociedad Basollua en 1956 y funcionó como tal hasta su cierre en 1996. El conjunto ofrecía espectaculares atalayas de avistamiento de ballenas, como las llamadas “Peña del Águila”, “Peña de los Balleneros” y “Peña del Rey”, y el singular merendero cuya estructura es conocida como “El Molino de Uliá”.

Conjunto histórico:

San Vicente, San Telmo y Urgull

Km 9,5

La iglesia de San Vicente y el actual Museo de San Telmo, edificios salvados de la destrucción ocurrida en 1813, constituyen el conjunto histórico más antiguo de la ciudad al socaire del monte Urgull, cuyo nombre, de origen gascón, era citado en la antigüedad como *Orgallu* u *Orgull*. Destacan sus muros y edificaciones, reminiscencia de su pasado militar, ya que fue fortificado en tiempo inmemorial y reconstruido por Sancho el Fuerte, rey de Navarra, en el siglo XII. En el Cementerio de los Ingleses, inaugurado en 1924, reposan combatientes de las distintas guerras habidas en el s. XIX. Vendido por el Ministerio del Ejército al Ayuntamiento de San Sebastián en 1921, fue configurándolo como parque público.



Itsasbazerreko hareharriak

Donostiako labarrak hareharri geruza sendoz eratutak dira. Haizearen eta uraren higadurak sortutako egitura bitxiak ageri dituzte. Hareharriek dauzkaten fosiletatik ondoriozta daiteke duela 56-48 milioi urte sortu zirela, Tertziarioan. Eta sedimentazio-egiturek adierazten dute 4.000 bat metroko sakonean metatu zirela, ekialdetik zetozen urpeko konoen sare baten bidez. Bizkaiko golkoa eratzean eta Pirinioak goratzean, arroka horiek urpetik atera ziren, tolestu ziren eta bertikalean jarri ziren, gaur egungo egoerara iristeraino.

Areniscas costeras

Los acantilados donostiarras están formados por potentes capas de roca arenisca, que muestran curiosas estructuras generadas por la erosión del viento y el agua. Los fósiles que contienen permiten deducir que se formaron entre hace 56 y 48 millones de años, durante el Terciario, y sus estructuras sedimentarias indican que fueron depositadas a unos 4.000 metros de profundidad por una red de abanicos submarinos que procedían del este. Durante la formación del Golfo de Bizkaia y la elevación de los Pirineos, estas rocas emergieron, se deformaron y verticalizaron, hasta alcanzar su actual configuración.



Donostiako Itzulia. "Ezezaguna dena aurkituz" baita lur orotako –BTT– edo grabeleko bizikletaz ere

Lur orotako –BTT– edo grabeleko bizikletaz egin dezakezun ibilbide bat da Donostiako Itzulia. Kontuan izan behar da ez dela bizikletaz egiteko paseo bat, baizik eta eskakizun handiko ibilbidea, egun bakarrean egiten baduzu. Izan ere, 50 kilometro luze da, eta 2195 metroko desnibel positibo metatua du: sasoi onean izan beharko duzu itzulia egun bakarrean osatu ahal izateko.

Ibilbidea lasaiago ere egin daiteke, hainbat etapatan zatituta, nork bere errit-mora egokituta. Horretarako, mapan hainbat aukera aurkituko dituzu, hiriko bidegorri sarean barrena berriz ere erdigunera ekarriko zaituztenak.

Ibilbidearen zatirik handienez, bide bera dute txirrindulariek eta oinezkoek. Bizikletaz ibiltzea zaila den bide zatietan, Donostiako Itzuliak baditu aukera errazagoak, mapan ikusiko duzunez.

Proposatutako ibilbidea beti teknikoki egiteko modukoa da lur orotako –BTT– edo grabeleko bizikletaz ibiltzera pixka bat ohituta dagoen edonorentzat. Malda gogorreko toki batzuetan beharrezkoa izan liteke oina lurrean jartzea, baina halako guneak oso-oso zati txikia dira ibilbidean. Oro har, ibilbide erraza da, egun atsegin bat edo gehiago gozatzeko aukera emango diguna, gure hiriko alde ezezagun bat aurkitzearekin batera.

Igeldon, Murgiletik jaitsiko gara. Zementuzko pista da, kanpingaren ondoren, lehenengoa ezkerretara. Aritzeta eta gero, bizikletaz egindako ibilbide eder baten ondoren, bidea berreskuratzen da. Garai bateko Lau Aizteta jatetxean, gaur egun itxita, Altxako errepidetik jarraitzen da. Buenavistarraino, han oinezkoentzako bidearekin bat egiten du. Ulian, Mendiola lepora iristera-koan, (Miracruz gainetik errepide estutik helduko gara) zementatutako pis-tatik ezkerreko joko dugu, Almirantearen gotorlekura joan gabe, eskuinera gailurrera sartuta edo aparkaleku-plazatxora zuzenean jaitsita. Bertatik mendiko bidea edo Uliako errepide ederra erabil daiteke, Jose Elosegira era-mango gaituena, Ategorrietako errepidea, Zurriolatik eta Pasealeku Berritik Udaletxeraino jarraitzeko.

La Vuelta a Donostia. "Descubriendo lo desconocido" también en bicicleta todo terreno –BTT– o gravel


La Vuelta a Donostia es un recorrido que puedes llevar a cabo en bicicleta todo terreno –BTT– o gravel. Hay que hacer la advertencia de que no es un paseo en bici, sino un exigente recorrido si lo vas a llevar a cabo en una sola jornada, con 50 km y 2195 m de desnivel positivo acumulado, que te exigirán estar en buena forma para completarlo.

El itinerario puede afrontarse también de una manera más tranquila, fraccionándolo en varias etapas a conveniencia de cada uno, para ello encontrarás señalizadas en el mapa las distintas alternativas que, a través de la red de bidegorris de la ciudad, te llevarán nuevamente al centro.

Durante la mayor parte del recorrido el trazado es el mismo para el ciclista y para el caminante. En los lugares en los que la dificultad del terreno lo hace difícilmente ciclable, Donostiako Itzulia te ofrece alternativas más transitables, como puedes comprobar en el mapa.

El recorrido propuesto es siempre técnicamente accesible para cualquiera mínimamente acostumbrado a la bicicleta todo terreno –BTT– o gravel. Si bien en algunos puntos las duras pendientes podrían obligar a algunos a echar pie a tierra, estos tramos suponen una parte ínfima del recorrido que, en general, presenta un perfil amable que nos hará disfrutar de una o varias jornadas placenteras, descubriendo la parte desconocida de nuestra ciudad.

En Igeldo se toma la bajada por Murgil, pista cementada 1ª a la izquierda después del Camping. Se recupera la ruta senderista después de Aritzeta tras un precioso recorrido ciclable. En el antaño restaurante Lau Aizeta, hoy cerrado, se sigue por la carretera por Altza hasta Buenavista donde se une a la ruta peatonal. En Ulia una vez en el collado Mendiola, donde se llega por la estrecha carretera desde el Alto Miracruz, se asciende por la pista cementada a la izda, sin ir al fuerte del Almirante, con la entrada a la dcha a la cima o descendiendo directamente a la plazoleta parking. Desde allí se puede utilizar el camino de monte o la preciosa carretera de Ulia que desemboca en la Avda José Elósegui, carretera de Ategorrieta, para seguir por La Zurriola y Paseo Nuevo hasta el Ayuntamiento.





Donostiako Itzuliak gure lurraldea ezagutzeko bizikleta erabiltzera gonbidatzen zaitu, ingurunea errespetatzen duen ohitura osasungarri bat sustatzeko asmoz. Lur orotako –BTT– edo grabeleko bizikleta erabiltzeak, bereziki honelako eremu erdihiritar batean, oinezkoen ondoan ibiltzea dakar. Begirunez joka ezazu, eta gogoan izan itzazu oinarritzko arauak:

- 🚲 Baimendutako bideetatik kanpora, ez ibili bizikleta gainean.
- 🚲 Han izan zarela erakusten duen aztarnarik ez utzi atzean.
- 🚲 Kontrola ezazu zeure bizikleta.
- 🚲 Utz iezaeizu pasatzen gainerako erabiltzaileei.
- 🚲 Ez uxatu abereak.
- 🚲 Planifika ezazu zure txangoa.
- 🚲 Erabil ezazu beti kaskoa.
- 🚲 Ez erabili entzungailurik.

La Vuelta a Donostia te invita a usar la bicicleta para conocer nuestro territorio, en la convicción de promover con ello un hábito saludable de una forma respetuosa con el entorno. El uso de la bicicleta todo terreno –BTT– o gravel implica, especialmente en un terreno semiurbano como el que nos ocupa, compartir la ruta con el caminante. Sé respetuoso y recuerda las normas básicas:

- 🚲 Monta únicamente en caminos permitidos.
- 🚲 No dejes huella de tu paso.
- 🚲 Controla tu bicicleta.
- 🚲 Cede siempre el paso a otros usuarios.
- 🚲 Nunca espantes a los animales.
- 🚲 Planifica tu salida.
- 🚲 Utiliza siempre el casco.
- 🚲 No utilices auriculares.

Seinaleak

La señalización

Donostiako Itzuliaren ibilbide osoa seinalez adierazita dago, margo zuri eta gorriko markekin, bidezidorren seinaleetarako ohiko kodeari jarraituz: **1** Bidezidorraren jarraipena, **2** Biratu eskuinerantz, **3** Biratu ezkererantz, eta **4** Okerreko noranzkoa.

Marka horiei esker, beste laguntzarik gabe egin daiteke ibilbide osoa. Donostiako Itzuliaren ibilbide osoa pintura zuri eta gorriko markekin seinalizatua dago. Donostiako Itzulia webgunean eskuragarri dauden GPS datuak, baliagarriak dira oso. Lau etapetako bakoitzaren hasieran, orobat, ibilbidearen argibide taulak aurkituko ditugu.

Todo el recorrido de la Vuelta a Donostia está señalizado con marcas de pintura blanca y roja que siguen el código habitual para la señalización de senderos: **1** Continuidad de sendero, **2** Giro a la dcha., **3** Giro a la izda. y **4** Dirección equivocada. Estas marcas permiten realizar la ruta completa sin más ayuda.

Todo el recorrido de la vuelta Donostia está señalizado en marcas de pintura blanca y roja. Los tracks para GPS disponibles en la página web de Donostiako Itzulia, resultarán de gran utilidad. En el inicio de cada una de las cuatro etapas encontraremos también paneles informativos del recorrido.





Club Vasco de Camping Elkartea



Osasuna eta Ingurumena
Salud y Medio Ambiente



D.L. SS 1412-2014

“Oinez ibiltzea, zinez, eginkizun sakratua da. Bizpahiru orduko paseoak egunero, inolako betebeharririk gabe, nire osasuna eta izpiritua zaintzen ditu”. *Walking* (1862) Henry David Thoreau

“Caminar es, en verdad, una empresa sagrada. Dos o tres horas de paseo al día, libre de toda obligación, me permiten conservar mi salud y mi espíritu”. *Walking* (1862) Henry David Thoreau